

2020-2021 IKASTURTEAN DOKTOREAK EZ DIREN IKERTZAILEAK PRESTATZEKO DOKTORATU AURREKO PROGRAMARAKO DEIALDIA: ***Laguntza berriak***

Deialdiaren xedea

Programaren helburua da ikertzaileen prestakuntza sustatzea, doktorego programa baten bidez, doktore titulua lor dezaten eta kalitatezko zientzia ikerketari lotutako gaitasunak eta trebetasunak eskura ditzaten.

Laguntzen ezaugarriak

Laguntza berrien lerroa modalitate hauen arabera egituratzen da:

- **A modalitatea:** Ezarpen zentroa Euskal Autonomia Erkidegoan dagoenean.
- **B modalitatea:** Ezarpen zentroa Estatuko beste tokiren batean dagoenean.
- **I. modalitatea:** Ezarpen zentroa atzerrian dagoenean.

100 laguntza berri emango dira Ikerketa Orokorraren lerroan eta 2 laguntza berri Ikerketa Espezifikoarenean. Azken lerro horrek arlo hauek barne hartuko ditu:

- Polimeroen eta sistema makromolekularren ikerketari aplikatutako neutroien teknikak.
- Energiarako materialen ikerketari aplikatutako neutroien teknikak.
- Material funtzionalen ikerketari aplikatutako neutroien teknikak.
- Sistema biologikoen eta material bio-inspiratuen ikerketari aplikatutako neutroien teknikak.

Kontratuen iraupena eta ezaugarriak:

Laguntzek doktoratu aurreko kontratu baten ezaugarriak izango dituzte laguntzak erabiltzeko aldi osoan. Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, kontratua sinatzen den egunetik hasita, eta beste hiru aldiz luzatu ahal izango da, aldi bakoitzean urtebetez.

Hona hemen urteko ordainsari gordina:

| Laguntza Berriak | | 1. berritzea | | 2. berritzea | | 3. berritzea | |
|------------------|-------------|----------------|-------------|----------------|-------------|----------------|-------------|
| Enplegatzailea | Enplegatua* | Enplegatzailea | Enplegatua* | Enplegatzailea | Enplegatua* | Enplegatzailea | Enplegatua* |
| 21.000 € | 16.450 € | 21.000 € | 16.450 € | 22.280 € | 17.625 € | 27.654 € | 22.031 € |

Eskatzaileek bete beharreko eskakizunak:

Gomendatzen da [deialdiko](#) oinarrien 25. artikulua kontsultatzea.

Eskaerak aurkezteko epea eta modua:

Eskaerak aurkezteko epea **2020ko irailaren 9an** amaituko da.

Hautagaia arduratuko da eskaera betetzeaz, EJren [Egoitza Elektronikoa](#)n telematikoki eskuragarri egongo den imprimakiaren bitartez. Hori da eskabidea egiteko dagoen modu bakarra.

Izangaia ikerketako aplikazio informatikoan sartuko da, eta bertan alta hartu beharko du

erabiltzaile moduan, eta aplikazioan zehaztutako jarraibideak bete. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak elektronikoki soilik aurkeztuko dira

Eskabide telematikoa osorik bete ondoren, eskatzailea onartutako sinadura elektronikoko edozein sistemaren bidez identifikatu beharko da, eta eskabidea ERREGISTRATZEKO prozesu elektronikoa osatu beharko du. Deialdiaren 22.2 artikulua arretaz irakurtzea gomendatzen da.

GARRANTZITSUA:

UPV/EHUko konpromiso dokumentua eskuratzeko izapidea:

Deialdiaren 27.6 artikulua adierazten duen moduan, UPV/EHUri atxikitzea aurreikusita duten eskatzaileen kasuan, Ikerketa Zuzendaritzak konpromiso dokumentua eskatuko du ofizioz, hau da, Ikerketaren arloko Errektoreordetzara joko du zuzenean. **Beraz, eskatzaile horiek ez dute aipatutako dokumentua erantsi beharko aplikazioan.**

Harremanetarako:

Eusko Jaurlaritza

– Telefonoa: 012

UPV/EHU

pre-postdoc.dgi@ehu.eus

Informazio gehiago:

LAGUNTZA BERRIAK-IKERKETA OROKORRA:

https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2020/predoc-berri/web01-tramite/eu/

LAGUNTZA BERRIAK- IKERKETA ESPEZIFIKOA:

https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2020/predoc-berri/espezifikoa/web01-tramite/eu/